

ANTZERKIA TEATRO DANTZA MUSIKA

UDA
VERANO
2019





MUSIKAGELA FEST II

UZTAILAK **06** JULIO
EASO PLAZA



Musikagela Fest II heldu den 2019ko uztailearen 6an egingo da Easo plazan. Herritarren arreta erakarri nahi da bertako musika talentua erakusteko. Jaialdi hau Musikagela zerbitzuko entsegu lokaletan edo kontzertu zirkloetan ari (edo aritu) diren musika proiektuei lagundu eta bistartzeko egin dugu.

Musikagela Fest se celebrará el próximo 6 de julio de 2019 en la plaza Easo. El objetivo es captar la atención del público para mostrar el talento musical local. El festival quiere apoyar y visibilizar los proyectos musicales que forman, o han formado, parte de de los locales de ensayo o ciclos de concierto que el servicio Musikagela organiza durante el año.

AURKIBIDEA

ÍNDICE

UZTAILA JULIO

Uztaila **04 - 07** Julio
CARMINA BURANA
LA FURA DELS BAUS
Victoria Eugenia
🎭 Pág. 06 Orr.

Uztaila **12 - 14** Julio
TOC TOC, LAZONA
Victoria Eugenia
🎭 Pág. 07 Orr.

Uztaila **16 - 21** Julio
ERGELA
SARA COZAR
JOSEBA APAOLAZA
Victoria Eugenia Club
🎭 Pág. 08 Orr.

Uztaila **17 - 21** Julio
SÉ INFIEL
Y NO MIRES CON QUIÉN
JOSEMA YUSTE, TETÉ
DELGADO
Victoria Eugenia
🎭 Pág. 09 Orr.

Uztaila **22** Julio
EUSKAL HERRIKO
GAZTE ORKESTRA
Victoria Eugenia
🎵 Pág. 10 Orr.

Uztaila **24-28** Julio
54 HEINEKEN JAZZALDIA
🎵 Pág. 11 Orr.

Uztaila **31** Julio
MARIE - ANTOINETTE
MALANDAIN BALLETT BIARRITZ
Victoria Eugenia
🎭 Pág. 12 Orr.

ABUZTUA AGOSTO

Abuztua **01 - 03** Agosto
MARIE - ANTOINETTE
MALANDAIN BALLETT BIARRITZ
Victoria Eugenia
🎭 Pág. 12 Orr.

Abuztua **01 - 04** Agosto
SEÑORA DE ROJO
SOBRE FONDO GRIS
JOSÉ SACRISTÁN
Antzoki Zaharra Teatro Principal
🎭 Pág. 13 Orr.

Abuztua **07 - 11** Agosto
PERFECTOS DESCONOCIDOS
PENTACIÓN
Victoria Eugenia
🎭 Pág. 14 Orr.

Abuztua **07 - 11** Agosto
EL ENJAMBRE
VAIVÉN PRODUCCIONES
Antzoki Zaharra Teatro Principal
🎭 Pág. 15 Orr.

Abuztua **13 - 15** Agosto
LOS CUERNOS
DE DON FRIOLERA
MORFEO TEATRO
Victoria Eugenia
🎭 Pág. 16 Orr.

Abuztua **14 - 18** Agosto
LOSERS (GALTZAILEAK)
AITZIBER GARMENDIA
JON PLAZAOLA
Antzoki Zaharra Teatro Principal
🎭 Pág. 17 Orr.

Abuztua **16 - 18** Agosto
EL CORONEL
NO TIENE QUIEN LE ESCRIBA
IMANOL ARIAS
Victoria Eugenia
🎭 Pág. 18 Orr.

Abuztua **20 - 25** Agosto
LO MEJOR DE YLLANA
YLLANA
Antzoki Zaharra Teatro Principal
🎭 Pág. 19 Orr.

Abuztua **21 - 25** Agosto
LA FUERZA DEL CARIÑO
LOLITA FLORES
LUIS MOTTOLA
ANTONIO HORTELANO
MARTA GUERRAS
Victoria Eugenia
👉👉 Pág. 20 Orr.

Abuztua **22 - 25** Agosto
EXTAFADAS
ALBA GARCÍA
CAROLINA BONA
CECILIA GESSA
MARIAN ZAPICO
Antzoki Zaharra Teatro Principal
👉👉 Pág. 21 Orr.

Abuztua **26 - 28** Agosto
INFARTO
¡NO VAYAS A LA LUZ!
SANTI RODRÍGUEZ
Antzoki Zaharra Teatro Principal
👉👉 Pág. 22 Orr.

Abuztua **27 - 29** Agosto
CRIMEN Y TELÓN
RON LALÁ
Victoria Eugenia
👉👉 Pág. 23 Orr.

Abuztua **28 - 31** Agosto
TXANOGORRITXOTIK OTSO
EMERA (SEI MUTIL MEDIO)
AITZIBER GARMENDIA
Victoria Eugenia Club
👉👉 Pág. 24 Orr.

Abuztua **29 - 31** Agosto
CONDUCTAS ALTERADAS
ANA MORGADE
CANCO RODRÍGUEZ
Antzoki Zaharra Teatro Principal
👉👉 Pág. 25 Orr.

Abuztua **30 - 31** Agosto
VOLVIÓ UNA NOCHE
BEATRIZ CARVAJAL
CARLOS SANTOS
Victoria Eugenia
👉👉 Pág. 26 Orr.

IRAILA SEPTIEMBRE

Iraila **01** Septiembre
VOLVIÓ UNA NOCHE
BEATRIZ CARVAJAL
CARLOS SANTOS
Victoria Eugenia
👉👉 Pág. 26 Orr.

Iraila **01 - 07** Septiembre
TXANOGORRITXOTIK OTSO
EMERA (SEI MUTIL MEDIO)
AITZIBER GARMENDIA
Victoria Eugenia Club
👉👉 Pág. 24 Orr.

Iraila **05 - 08** Septiembre
LA MAGIA DE JORGE BLASS
JORGE BLASS
Antzoki Zaharra Teatro Principal
👉👉 Pág. 27 Orr.

Iraila **05 - 08** Septiembre
THE HOLE ZERO
Victoria Eugenia
👉👉 Pág. 28 Orr.

Iraila **12 - 14** Septiembre
TXARRIBODA
HIKA ANTZERKI TALDEA
Antzoki Zaharra Teatro Principal
👉👉 Pág. 29 Orr.

Iraila **13 - 14** Septiembre
LUISA FERNANDA
ASOCIACIÓN LÍRICA
SASIBILL LIRIKA ELKARTEA
Victoria Eugenia
🎵 Pág. 30 Orr.

Iraila **27** Septiembre
YO CIERVO
Imanol Larzabal (Lugaritz)
🎵 Pág. 31 Orr.

Iraila **28** Septiembre
TENDRÍAMOS
QUE HABER EMPEZADO
DE OTRA MANERA
ÉKOMA TEATRO
JAVIER LIÑERA
Imanol Larzabal (Lugaritz)
👉👉 Pág. 32 Orr.

GLAD IS THE DAY V

ABUZTUA **04** AGOSTO
CRISTINA ENEA



Bosgarren urtez jarraian Cristina Enea parkeak eguneko jaialdi bikaina hartuko du bere baitan. Kontzertu, Dj, azoka eta haurrentzako jardueraz gozatzeko eguna.

El parque Cristina Enea volverá a acoger el fantástico festival diurno por quinto año consecutivo. Un día para disfrutar de conciertos, Djs, mercadillo y actividades infantiles.



CARMINA BURANA LA FURA DELS BAUS

Uztaila **04 - 07** Julio

VICTORIA EUGENIA

04, 05: **20:00**

06: **18:00 + 20:30**

07: **19:00**

04: **59 € / 55 € / 49 €**

05 - 07: **65 € / 59 € / 55 €**

● latín, deutsch, castellano

30 urteko ibilbidearen ondoren, Carlus Padrissak, La Fura dels Baus-en sortzaileetako batek, *Carmina Burana* bizi-bizi bat asmatu du, non ikus-entzuleak, eszena inarrosleen, efektu berezien eta are urrin udaberrikoen bidez, La Fura dels Baus-en unibertsoan murgiltzen baitira bete-betean.

Agertokian, hamar metroko diametroko zilindro batek biltzen du orkestra, eta irudi batzuk proiektatzen dira haren gainean, obra osoa hasi eta buka agertzen dutenak. Ilargi erraldoi bat, desizoztea, ur-jauziak, lore-ektasia, mahats-bilketa zuzenean, ardoa, ura eta sua... La Fura dels Baus-en *Carmina Burana* hau zentzumenentzako musika- eta antzerki-sentikaria da, bizi-indarrez betea, eta dagoeneko 200.000 ikus-entzule izan ditu Europan, Asian eta Amerikan.

Tras 30 años de trayectoria, Carlus Padrissa, miembro fundador de La Fura dels Baus, ha concebido un *Carmina Burana* trepidante donde el espectador, a través de impactantes escenas, efectos especiales e incluso fragancias primaverales, se sumerge de lleno en el universo de La Fura dels Baus.

Sobre el escenario, un gran cilindro de diez metros de diámetro envuelve literalmente la orquesta, mientras unas imágenes proyectadas sobre él, ilustran toda la obra de principio a fin. Una luna gigante, el deshielo, cascadas de agua, un éxtasis floral, una vendimia en directo, vino, agua y fuego.... El *Carmina Burana* de La Fura dels Baus es un espectáculo sensorial, musical y teatral, vital y enérgico, que ya ha sido visto por más de 200.000 espectadores en Europa, Asia y América.



TOC TOC LAZONA

Uztaila **12 - 14** Julio

VICTORIA EUGENIA

20:00

13: **20:00 + 22:30**

28 € / 24 € / 20 €

● castellano

Sei pertsonaia mediku ospetsu baten kontsultategira joaten dira euren nahasmendu obsesibo-konpulsiboak tratatzeko. Medikua ez da inoiz kontsultategira iritsiko, eta azkenik pazienteek konpontzen dituzte euren arazoak.

Carmen Arévalo, Esteve Ferrer, Laura Hernando, Sara Moros, Paco Obregón, Fran Sariego eta **Ana Trinidad**ek osatzen dute Ferrerrek berak zuzentzen duen komedia honetako antzezleri-zerrenda.

Seis personajes acuden a la consulta de un prestigioso doctor para tratar sus trastornos obsesivo compulsivos (TOC). El doctor no llega nunca a la consulta y finalmente son los pacientes los que resuelven sus propios problemas.

Carmen Arévalo, Esteve Ferrer, Laura Hernando, Sara Moros, Paco Obregón, Fran Sariego y **Ana Trinidad** conforman el elenco de esta comedia dirigida por el propio Ferrer.



ERGELA

SARA COZAR
JOSEBA APAOLAZA

Uztaila 16 - 21 Julio

VICTORIA EUGENIA CLUB

16: 20:00

17 - 19: 22:00

20, 21: 18:00

15 €

● euskera

Froga psikologiko batzuetara aurkeztu da protagonista, diru pixka bat irabazteko asmoz. Bere arazo ekonomikoak konpontzeko diru erraza irabaztekoan joan da, baina trampa eta iruzurra aurkituko ditu ordainetan. Psikologo misterioitsu batek galdera sorta tranpatia egingo dio, gure tontolapikoa urduritasunak jota utzi arte. Halaber, bere onenak eman beharko ditu zoritxarreko amaierarik gerta ez dadin.

Joseba Apaolaza eta Sara Cozar dira **Jordi Casanovas**en komedia honen protagonista, **Begoña Bilbao**ren zuzendaritzapean.

Un hombre se presenta a unas remuneradas pruebas psicológicas. Lo que él piensa que será una manera fácil y sencilla de conseguir el dinero que necesita para resolver sus problemas económicos, se convertirá en una auténtica trampa. Una psicóloga le formulará preguntas y enigmas que le pondrán nervioso y que le obligarán a sacar lo mejor de sí para evitar el fatal final.

Joseba Apaolaza y Sara Cozar protagonizan esta comedia de **Jordi Casanovas** bajo la dirección de **Begoña Bilbao**.



SÉ INFIEL Y NO MIREŞ CON QUIÉN

JOSEMA YUSTE, TETÉ DELGADO

Uztaila 17 - 21 Julio

VICTORIA EUGENIA

20:00

20: 20:00 + 22:30

28 € / 24 € / 20 €

● castellano

Luis haurrentzako liburuak egiten dituen argitaletxe baten jabea da, eta bolada txarra pasatzen ari da. Haren bazkide eta lagun Álvaro, bulegokideak, apartamentua uzteko eskatu dio, azken ligoa gauean entretenitzeko. Baina Rocío ere, Álvaroren emazteak, apartamentu hori eskatu dio gau horretarako Beari, Luisen emazteari. Ederra istilua, polita gona eta praka horien dantza!

Horrez gainera, inork ez daki Óscar, pisu dotore hori azken hiru hilabeteotan dekoratzen jardun duen barne-diseinatzailea, ohe biribil berria probatzekoan dela gau horretantxe bere maitalearekin, etxe hartako neskaarekin. Gau horretan, hiru bikoteek apartamentua hutsik dagoelakoan topo egiten dutenean, egundoko anabasa sortuko da.

Santiago Urrialde, Esther del Prado, Maribel Lara, Vicente Renovell, Celine Tyll, Kiko Ortega eta **Claudia Azconak** osatzen dute komedia honetako aktore zerrenda, Josema Yusteren zuzendaritzapean.

Luis es propietario de una editorial de libros para niños en horas bajas. Su socio y amigo Álvaro, con el que comparte oficina, le pide que le preste su apartamento por la noche para "entretener" a su última conquista. Pero al mismo tiempo Rocío, la mujer de Álvaro, también ha solicitado el apartamento para esa misma noche a Bea, mujer de Luis. Vaya lío de faldas y pantalones!

Pero es que además nadie sabe que Óscar, el diseñador de interiores que ha estado decorando el elegante piso durante los últimos 3 meses y su amante, la empleada del hogar de la casa, han decidido que esa misma noche probarán la nueva cama redonda. Cuando los tres grupos de personas coinciden la misma noche en el apartamento, esperando encontrarlo vacío, se produce el caos.

Santiago Urrialde, Esther del Prado, Maribel Lara, Vicente Renovell, Celine Tyll, Kiko Ortega y **Claudia Azcona** completan el reparto de esta comedia, bajo la dirección de Josema Yuste.





EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA

Uztaila **22** Julio

VICTORIA EUGENIA

20:00

10 €

5. SINFONIA P. I. Tchaikovsky
DANTZA MAKABROA C. Saint Saëns
Zuzendaria **Director: Juan José Ocón**

Kolaboratzailea **En colaboración con:**
Euskal Herriko Gazte Orkestra

Euskal Herriko instrumentista gazteei orkestra-prestakuntza emateko tresna izateko asmoz sortu zen EGO. Orkestra-prestakuntzarik onena ematea, instrumentista gazteen arte- eta giza garapena sustatzeko egitura sendo bat sortzea, eta arlo profesionalean sartzeko arte-maila handiko bidea izatea ditu helburu.

La EGO tiene como objetivo servir de instrumento de formación orquestal para las y los jóvenes instrumentistas vascos. Busca conseguir una óptima formación orquestal, crear una estructura sólida para poder fomentar el desarrollo artístico y humano de jóvenes instrumentistas y servir de puente de acceso, de alto nivel artístico, al mundo profesional.



54 HEINEKEN JAZZALDIA

Uztaila **24 - 28** Julio

www.heinekenjazzaldia.eus

54 Heineken Jazzaldia uztailaren 24tik 28ra izango da. Ohi bezala jaialdiak irauten duen bost egunetan hiriko 17 agertokitan 100 kontzertu baino gehiago eskainiko dira, horietako asko dohainik.

Emanaldien hiruren bat bertako musikariena izango da. Horiez gain, programazioan mundu mailan ezagunak diren musikariak izango ditugu, besteak beste: **Jamie Cullum, Joan Baez, Diana Krall, John Zorn, Neneh Cherry, Silvia Pérez Cruz, Toquinho, Joshua Redman** eta **Joe Jackson**.

Jazz japoniarraren zikloko kontzertu gehienak Victoria Eugenia Antzokian izango dira, Skoda Gunean. Bestalde, San Telmo Museoa berriz ere SGAE Fundazioak sustatutako zikloko kontzertuak eskainiko dira.

Del 24 al 28 de julio se celebrará el 54 Heineken Jazzaldia. Como es habitual, más de 100 conciertos, muchos de ellos gratuitos, ocuparán durante esos cinco días los 17 escenarios en que tendrá lugar el certamen.

Los músicos locales serán protagonistas de cerca de un tercio de la programación, cuyos nombres más conocidos serán **Jamie Cullum, Joan Baez, Diana Krall, John Zorn, Neneh Cherry, Silvia Pérez Cruz, Toquinho, Joshua Redman** y **Joe Jackson**.

En el Teatro Victoria Eugenia, Espacio Skoda para la ocasión, tendrá lugar la mayoría de los conciertos del Ciclo dedicado al jazz japonés y en el Museo San Telmo, de nuevo, se ofrecerán los conciertos del ciclo promovido por la Fundación Autor de SGAE.





MARIE - ANTOINETTE MALANDAIN BALLET BIARRITZ

Uztaila **31** Julio - Abuztua **03** Agosto

VICTORIA EUGENIA

20:00

32 € / 23 € / 15 €

Versaillesko Errege Operak ere eskatuta idatzitako *Errauskine* eta *Ederra eta Piztiaren* ondoren, **Thierry Malandainek** iruditeria kolektiboaren parte den eta guztion oroimenean bizirik dirauen beste figura bat eramango du oholtzara: Maria Antonieta edo “zorigaitzaren erregina”. Maria Antonietak ikuskizun asko antolatu zituen gortean eta artista asko babestu zituen. Thierry Malandainek, Malandain Ballet Biarritzeko zuzendariak, bere alderdi ezberdinak ikertuko ditu, dantzaren bitartez.

Tras *La Cenicienta* y *La Bella y la Bestia*, creadas también por iniciativa de la Ópera Real de Versailles, **Thierry Malandain** llevará al escenario María Antonieta o “la reina del infortunio”, otra figura perteneciente al imaginario colectivo, presente siempre en la memoria. María Antonieta organizó muchos espectáculos en la corte y fue la protectora de numerosos artistas. Thierry Malandain, director de Malandain Ballet Biarritz, explora sus múltiples facetas a través de la danza.



SEÑORA DE ROJO SOBRE FONDO GRIS JOSÉ SACRISTÁN

Abuztua **01** - **04** Agosto

ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL

20:00

25 € / 20 €

● castellano

Lanbidean urte asko daraman margolari bat sormen-krisi latzean sartua dabil luzaroan. Emaztea ustekabean hil zitzaionez geroztik, hura dena baitzen berarentzat, ezin izan du margotu ezer. Egoera horretan, gogoratuko du nola, gazte-gaztetan elkar ezagutu zutenetik, gertaera zoriontsuek harengana erabat maitemenez lotuta eduki zuten; nola, pixkanaka, gaixotasuna agertu zen inork gutxien uste zuenean, eta nola horrek heriotzara eraman zuen 48 urtetan.

Antzezlan hau maitasun-istorio bat da, heriotzarainoko bidean, Espainia ezagun baten ezaugarriak ageri zaizkigularik. Zorionaz eta zorionaren galeraz hitz egiten digu, eta gizaki bakoitzaren barne-muinetaraino iristen da, emozioraino, egiaren bide zuzen eta sinpletik.

Un pintor, con muchos años en el oficio, lleva tiempo sumido en una crisis creativa. Desde que falleció de forma imprevista su mujer, que era todo para él, prácticamente no ha podido volver a pintar. En este estado recuerda, desde que muy jóvenes se conocieron, tanto los acontecimientos felices que le tuvieron tenazmente enamorado de ella durante toda su vida como la aparición, poco a poco, de una enfermedad que, sin nadie suponerlo, le condujo a una muerte inesperada a los 48 años de edad.

Esta obra teatral es el relato de una historia de amor en camino desenfundado hacia la muerte, que nos sitúa en aquella España con rasgos inequívocos, que nos habla de la felicidad y de su pérdida, y que llega a la intimidad de cada ser humano y a su emoción, por el camino recto y simple de la verdad.





PERFECTOS DESCONOCIDOS PENTACIÓN

Abuztua **07 - 11** Agosto

VICTORIA EUGENIA

20:00

10: **20:00 + 23:30**

28 € / 24 € / 20 €

● castellano

Betidanik adiskide diren lagun talde bat afaría egitekotan dira, norbaitek zerbait du kontatzeko... Batek jolas bat proposatzen du: sakelakoetako mezuak eta deiak besteekin partekatzea afaldu bitartean. Inork ba al du ezer ezkutatzekorik? Jolastuko al gara?

Alicia Borrachero, Antonio Pagudo, Fernando Soto, Elena Ballesteros, Jaime Zatairaín, Ismael Fritschi eta **Inge Martín** dira komedia honetako aktoreak, eta **Daniel Guzmán** zuzendaria.

Un grupo de amigos de toda la vida queda para cenar, alguien tiene algo que contar... Uno de ellos propone un juego: compartir los mensajes y llamadas de sus móviles durante la cena. ¿Alguien tiene algo que ocultar? ¿Jugamos?

Alicia Borrachero, Antonio Pagudo, Fernando Soto, Elena Ballesteros, Jaime Zatairaín, Ismael Fritschi e **Inge Martín** protagonizan esta comedia bajo la dirección de **Daniel Guzmán**.



EL ENJAMBRE VAIVÉN PRODUCCIONES

Abuztua **07 - 11** Agosto

ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL

20:00

08: **19:00**

10: **20:00 + 23:30**

25 € / 20 €

● castellano

Txikitako lagun kuadrilla bat asteburu pasa joango da landetxe batera beraietako baten ezkon aurreko agurra ospatzera. Urteak ordea ez dira alferrik pasatzen eta elkarren arteko lotura estua sentitu arren, ezer ez da garai batean bezala; edo bai...

Asteburu "eroa" izan behar zena, are gehiago erotuko da; trapu zaharrak, esan gabeko gauzak, esandakoak, alkohola, droga eta erlauntz bat. Esaten da erleak direla animalien erreinuan hobekien komunikatzen diren izakiak. Eta dantzan komunikatzen omen dira... **Aitziber Garmendia, Sara Cozar, Getari Etxegarai, Leire Ruiz, Naiara Arnedo** eta **Vito Rogado** dira lan honen protagonista, **Mireia Gabilondoren** zuzendaritzapean. *El enjambre* Victoria Eugenia Antzokiak, Gasteizko Antzoki Zaharrak eta Arriaga Antzokiak ekoiztutako lana da **Antzerkigintza Berriak** programaren barne.

Un grupo de amigas de la infancia ha ido a una casa rural para celebrar la despedida de soltera de una de ellas. Pero los años no pasan en balde y aunque sientan un vínculo muy fuerte entre ellas, nada es lo que era; o sí...

Lo que a priori iba a ser un fin de semana a lo loco, enloquecerá un poco más si cabe; trapos sucios, cosas que nunca se dijeron, confesiones, alcohol, droga y una colmena. Se dice que en el reino animal las abejas son los seres que mejor se comunican. Y al parecer se comunican bailando... **Aitziber Garmendia, Sara Cozar, Getari Etxegarai, Leire Ruiz, Naiara Arnedo** y **Vito Rogado** protagonizan esta obra bajo la dirección de **Mireia Gabilondo**. El enjambre es una obra coproducida por el Teatro Victoria Eugenia, el Teatro Principal de Vitoria y el Teatro Arriaga en el marco del programa **Nuevas Dramaturgias**.





LOS CUERNOS DE DON FRIOLERA

MORFEO TEATRO

Abuztua 13 - 15 Agosto

VICTORIA EUGENIA

20:00

24 € / 20 € / 15 €

● castellano

XX. mendearen hasierako Espainia ageri zaigu esperpento jostagarri honetan, non **Valle-Inclán**ek “adarrak” direla-eta galdutako ohorearen aurreiritzi moralak kritikatzeko baititu. Bere pertsonaiez eta haien jokamolde sainetezkoaz trufatzeko asmoa hartzen du, bai eta lortu ere, parodia satiriko honetan, zeinak barre-zantzo ankerrak eragiten baititu espainiarren tradizio matxistaren gainean.

Historiak kontatzen du nola Astete tenienteak -don Friolerak- anonimo bat jasotzen duen esanez emazteak engainatu egiten duela. Bere emazte doña Loretarengatik sentitzen dituen zeloez erotuta, hura auzoko putzontzi erdipurdiko batek tentatzen baitu, Pachequín bizargileak, mendeku hartzea deliberatzen du, beste auzo asmo gaiztokoek xaxaturik.

Este divertido esperpento retrata una España de principios del siglo XX en la que **Valle-Inclán** critica los prejuicios morales de la pérdida del honor por “los cuernos”; por eso pretende, y logra con suma ironía, burlarse de sus personajes y de sus comportamientos de folletín sainetero, en una parodia satírica, que provoca risas crueles y desatadas sobre la tradición machista de los españoles.

La historia narra como el teniente Astete -don Friolera-, recibe un anónimo avisándole de que su mujer le engaña. Vuelto loco por los celos que siente de su frívola mujer, doña Loreta, tentada por un chulapo de medias tintas y vecino, el barbero Pachequín, e instigado por un malintencionado vecindario, trama tomar venganza.



LOSERS (GALTZAILEAK)

AITZIBER GARMENDIA
JON PLAZAOLA

Abuztua 14 - 18 Agosto

ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL

20:00

20 € / 15 €

● euskara

ESTREINALDIA
ESTRENO

Manuel eta Sandra adinean aurrera doaz -ia berrogei-, eta gizakiok tenore horretara ailegatuta, gizarteak markatutako baldintzetatik ez dute bat bera ere betetzen: umerik ez, bikoterik ere ez eta diruz urri, etxebizitza bat erosteko aukerarik gabe. Horregatik euren buruak galtzailatzat dituzte eta aldatzeko esperantza handirik gabe, ia-ia etsiak jota, pozik bizitzeko merezimendurik izango ez balute bezala.

Bizipozak, ordea, ez du mugarik eta areago, ez du zer ikusirik ondasun materialekin edo gizarteak markatzen dituen usadio eta arauen menpe bizitzearekin. Gu geu gara gure bizitzak nolakoa beharko duen erabaki behar dugunak. Geure beldur eta mugak gainditzeko gai izanez gero behintzat. Manuel eta Sandrak bakarti bizitzeari utzi nahi diote. Goibel antza bizi dira, baina pozik bizi nahi dute. Lortuko al dute?

Manuel y Sandra tienen ya unos cuantos años -casi cuarenta-, y a estas alturas de la vida, ninguno de ellos cumple con las condiciones que les impone la sociedad. No tienen hijos ni pareja, y andan tan escasos de dinero que no se pueden permitir comprar una vivienda. Por todo ello, se consideran perdedores, sin apenas esperanzas de que la situación cambie para ellos, al borde de la desesperación, como si no hubieran hecho méritos suficientes para vivir.

Pero la alegría de vivir no conoce límites; es más, no tiene nada que ver con los bienes materiales o con vivir según las reglas y costumbres que marca la sociedad. Somos nosotros quienes debemos decidir cómo debería ser nuestra vida. Siempre que seamos capaces de superar nuestros miedos y límites. Manuel y Sandra desean dejar de vivir en soledad. Viven tristes, pero quieren ser felices. ¿Lo conseguirán?





EL CORONEL NO TIENE QUIEN LE ESCRIBA

IMANOL ARIAS

Abuztua 16 - 18 Agosto

VICTORIA EUGENIA

20:00

17: **20:00 + 23:30**

28 € / 24 € / 20 €

● castellano

Koronel zaharra eta haren emaztea miserian bizi dira, gobernuaren gutunaren zain, gerran egindako zerbitzuengatik agindutako pentsioa berretsiko dieten zain. Baina gutun hori ez da iristen, eta bitartean bikote zaharra ahal duen bezala bizi da, pobrezian, borroka-oilar bat zainduz, hari esker ateratzen baitute bizibidea.

Denbora aurrera doa eta gutuna ez da iristen, eta azkenean erabaki bat hartu beharrean aurkituko dira: oilarrari jaten eman ala berek jan. Herritarren diru-gosea, ustez lagun direnen lukurreria, gerraren halabehar ergela, dena nahasten da koronel zaharraren bakardadearekin. Bizitzak azpian hartu du, baina oraindik ere bi altxor ditu: emaztearen maitasuna eta duintasuna

Cristina de Inza, Jorge Basanta, Fran Calvo eta **Marta Molinak** osatzen dute **Gabriel García Márquez**en lan honetako aktore-taldea, denak ere **Carlos Saura**ren zuzendaritzapean.

El viejo coronel y su mujer viven en la miseria, esperando la carta del gobierno en la que le comuniquen la concesión de la pensión prometida por sus servicios durante la guerra. Pero esa carta nunca llega y, mientras tanto, la vieja pareja malvive en la pobreza alimentando a un gallo de pelea, que es su única esperanza de supervivencia. A medida que avanza el tiempo y la carta sigue sin llegar, deberán enfrentarse a un dilema: alimentar al gallo o alimentarse ellos. La codicia del pueblo, la usura de los supuestos amigos, la fatalidad y estupidez de la guerra, se mezclan con la soledad del viejo coronel vencido por la vida pero al que aún le quedan dos tesoros: el amor de su mujer y la dignidad.

Cristina de Inza, Jorge Basanta, Fran Calvo y **Marta Molina** completan el reparto de esta obra de **Gabriel García Márquez**, bajo la dirección de **Carlos Saura**.



LO MEJOR DE YLLANA YLLANA

Abuztua 20 - 25 Agosto

ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL

20:00

25 € / 20 €

● castellano

2016a oso urte berezia izan zen Yllanarentzat. 25 urte bete zituen!!! Eta ospakizunetan jarraitzen du, nola eta dakien modurik hoberean: *Lo Mejor de Yllana* ikuskizuna eskainiz. Bertan, konpainiaren ibilbideko unerik ederrenak berpiztuko ditu, beren ikuskizun guztietako esketxik onenak eskainiz.

Lo Mejor de Yllana show ezin barregarriagoa da, Yllanaren jarraitzaileen nahiak beteko dituena: ikuskizun bakar batean gozatzea konpainiak mende laurden honetan eman dituen gag-ik dibertigarrienez.

2016 fue un año muy especial para Yllana. ¡Cumplió 25 años! Y lo sigue celebrando como mejor sabe hacerlo, con su espectáculo *Lo Mejor de Yllana* donde repasa sobre el escenario los grandes momentos de la trayectoria de la compañía con una selección de los mejores sketches de sus espectáculos.

Lo Mejor de Yllana es un desternillante show que hará realidad el deseo de los fans de Yllana de disfrutar, en un mismo espectáculo, de los gags más divertidos de la compañía en este cuarto de siglo.





LA FUERZA DEL CARIÑO

LOLITA FLORES, LUIS MOTTOLA,
ANTONIO HORTELANO,
MARTA GUERRAS

Abuztua 21 - 25 Agosto

VICTORIA EUGENIA

20:00

28 € / 24 € / 20 €

● castellano

Aurora, ama ezin hobea eta alargun lotsatia, eta Emma, haren alaba errebelde eta maitagarria, eta irakasle trakets eta limurtzailea, eta astronauta eszentriko andrezalea. Lau izakiok, aldeak alde (eta alde handiak dituzte elkarren artean), egunero ospatzen dute bizitza.

Umorez, malkoz, ironiaz, haserre, garrasika, barrez... ospatzen dute. Zori hutsez ordenatzen gaituen bizitza hori, odolaren edo desiraren lokarriz hurbiltzen eta bereizten gaituena, misteriotsuki, interpretatzen ez dakigun konstelazio magikoen esanetara, eta hor uzten gaituena, bidaiaren erdian.

Aurora, la madre perfecta y tímida viuda, y Emma, su hija rebelde y entrañable, y el profesor torpe y seductor, y el astronauta excéntrico y mujeriego. Estos cuatro seres, a pesar de sus grandes diferencias, celebran la vida de cada día.

La celebran con humor, lágrimas, ironías, enfados, gritos, risas... Esta vida que nos ordena al azar, que nos acerca y separa por lazos de sangre o de deseo, de forma misteriosa, cumpliendo mágicas constelaciones que no sabemos interpretar, y que ahí nos deja, en medio del viaje.



EXTAFADAS

ALBA GARCÍA, CAROLINA BONA,
CECILIA GESSA, MARIAN ZAPICO

Abuztua 22 - 25 Agosto

ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL

22:30

20 € / 15 €

● castellano

Lau emakume, elkarren guztiz desberdinak eta elkar ezagutzen ez dutenak, auzitegi bateko egongelan elkartu dira, deklaratzera deitu baitituzte. Laster jakingo da gizon berak iruzurtu dituela laurak. Are okerrago, bihotza hautsi die lauri.

Istoria denbora errealean gertatzen da, espazio bakar batean. Lau ezezagunok aliantzak egingo dituzte, aurkituko dute ez zutela besteen berri, ez zekitela dena beren buruaz ere, eta plan bat egiteari ekingo diote. Aliantza berri horiek, hala ere, ustekabe berriak ekar ditzakete, laurak ere ez baitira begi-bistan diruditena.

Cuatro mujeres totalmente dispares y desconocidas entre sí, convergen en la sala de espera de un juzgado al que han sido convocadas a declarar. Pronto se descubrirá que todas han sido estafadas por el mismo hombre. Lo que es aún peor, a todas les ha roto el corazón.

A lo largo de la historia, que transcurre en tiempo real en un único espacio, las cuatro desconocidas pasarán a formar alianzas, a descubrir cosas que no sabían de las demás y de ellas mismas, y a generar un plan de acción. Sin embargo, esas nuevas alianzas pueden traer sorpresas, porque no todas ellas son lo que aparentan a simple vista.





INFARTO ¡NO VAYAS A LA LUZ! SANTI RODRÍGUEZ

Abuztua 26 - 28 Agosto

ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL

20:00

20 € / 15 €

● castellano

Gizon heldu batek, familia bat osatu eta bizitzan aurrera egin ondoren, bihotzekoa izan du eta hilzorian geratu da. Hala dagoela, bere bizitzari gainbegiratu emateko aukera du, eta ondoren berriro itzultzen da bizidunen artera, medikuek garaiz bizkortzen dutelako. Bizipen traumatiko eta argitzaile horren ondoren, gizon horrek bigarren aukera hobeto probestea erabakitzen du. Egin gabe dituen proiektu asko egiten saiatzen da, batzuk sinpleak eta arinak, arnasa luzeagokoak beste batzuk. Gizon heldu motibatuegi bat, bizinahi izugarrikoa, eta luzapen ustekabeko hori ondo probesteko amorru handia duena, beldurrik edo galgarik gabe: horra osagai ezin hobeak bizitzari buruzko komedia akasgabe honetarako... non tragedia ere hortxe-hortxe baitago zain. Ez zaitetz joan argirantz!

Un hombre maduro, y con una vida familiar y estable, sufre un infarto que lo lleva al borde de la muerte, umbral donde repasa su propia vida y del que consigue volver porque los médicos lo reaniman a tiempo. Tras esta experiencia traumática y reveladora, nuestro protagonista decide aprovechar esta segunda oportunidad. Se empeñará en cumplir toda una lista de proyectos pendientes, desde los más simples y veniales a los más ambiciosos. Un maduro con un exceso de motivación, unas ganas de vivir desatadas hasta el punto de la temeridad, y unas ansias desenfadadas por aprovechar esta prórroga inesperada, sin miedo ni frenos, son los ingredientes perfectos para esta impecable comedia sobre la vida... donde se masca la tragedia. ¡No vayas a la luz!



CRIMEN Y TELÓN RON LALÁ

Abuztua 27 - 29 Agosto

VICTORIA EUGENIA

20:00

28€ / 24€ / 20€

● castellano

Ikus-entzule jaun-andreok: atxilo hartzen zaituztegu lehen graduko artizidio baten susmagarri, konplize edo lekuko gisa. Eskubidea duzue barre edo negar egiteko, emozionatzeko, abestien erritmoari jarraitzeko eta *Crimen y telón*en amaiera inori ez kontatzeko.

Antzerkia hil egin da eta Noir detektibeak hiltzailea aurkitu behar du Anti Arte Agentziak iragan ilun baten sekretua argitu baino lehen. Horretarako, Antzerkiaren historian ibiliko da, egia ezkutuen bila, pertsonaia-sare misterioitsu bat itzalean konspiratzen dabilen bitartean. Omenaldia antzerki unibertsalari, genero beltzeko thriller eran egina, etorkizun hurbilean girotua, non arteak debekatuta baitaude eta non gure planeta, Lur Hiri bihurturik, adimen artifizial batek gidatzen baitu, dronen armada baten laguntzaz. Erlojupeko ikerketa bat, zeinaren ondorioz hiltzailea edonor izan baitaiteke. Baita zeuek ere, ikus-entzule jaun-andreok.

Señores espectadores: quedan detenidos como sospechosos, cómplices o testigos de un artificio en primer grado. Tienen derecho a reír, llorar, emocionarse, seguir el ritmo de las canciones y no desvelar a nadie el final de *Crimen y telón*.

El Teatro ha muerto y el detective Noir tiene que descubrir al asesino antes de que la Agencia Anti Arte desvele el secreto de su oscuro pasado. Para ello recorrerá la historia del Teatro en busca de verdades ocultas mientras una red de misteriosos personajes conspiran en la sombra... Un homenaje al teatro universal con forma de thriller de género negro, ambientado en un cercano futuro en que las artes están prohibidas y nuestro planeta, convertido en Ciudad Tierra, es liderado por una inteligencia artificial con un ejército de drones. Una investigación contrarreloj en la que el asesino podría ser cualquiera. Incluso ustedes, señores espectadores.





TXANOGORRITXOTIK OTSO EMERA (SEI MUTIL MEDIO) AITZIBER GARMENDIA

Abuztua **28** Agosto – Iraila **07** Septiembre



VICTORIA EUGENIA CLUB

28, 29: **22:00**

30 – 01: **22:30**

03, 04: **20:30**

05: **18:30**

06, 07: **17:30**

15€

● euskera

Ikuskizun hau harremanen munduaren azterketa sakon baten ondorio da, saioa-belarrondokoa metodo ezagunean oinarritutako azterketa. Maitasun-kontuen patetismoa barrearen bidez gainditzeko eskuliburu peto-petoa. Eta, beraz... sexu guztientzako moduko ikuskizuna! Izan ere, maitasunean denok gara patetikoak... Eta hartaz gozatzeko modu bakarra honako maximo hau da: "Azkena barre egiten duenak... alfer-alferrik galdu du denbora".

Este espectáculo es el resultado de un concienzudo estudio del mundo de las relaciones, basado en el conocido método del ensayo-hostión. Un auténtico manual de superación del patetismo amoroso a través de la risa. Y por lo tanto... ¡Un espectáculo para todos los sexos! Porque en el amor todos somos igual de patéticos... Y la única forma de disfrutar de él es aplicar esta máxima: "El que ríe el último... ha perdido un tiempo precioso".



CONDUCTAS ALTERADAS ANA MORGAGE CANCO RODRÍGUEZ

Abuztua **29 - 31** Agosto

ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL

29: **22:30**

30: **20:00 + 22:30**

31: **20:00**

25€ / 20€

● castellano

Familia batek nahitaez konpondu beharrak ditu pilatuz joan zaizkion arazoak. Bikoteak etsi du biek bakarrik ezin dutela, eta beharrezko guztia egingo dute norbait ekarri eta konpon ditzan. Ez dute dirurik psikologotan xahutzeko, ez lanik, ez denborarik, ez indarririk, ez tresnarik urteen buruan eta seme-alaba izatean pilatu zaizkien saltsak konpontzeko. Baina seme-alabak laguntza beharrea dira, eta ez dakite zer egin. Etsi-etsian, telebistako Super Nannyri deituko diote; hura bere zirixko magikoarekin etorriko balitz...

Angela Chivak eta **Paloma Porcelek** osatzen dute komedia mingots eta jostagarri honen antzezle-zerrenda, non familia bat eguneroko arazoak konpontzen saiatzen baita.

Una familia necesita, a cualquier precio, arreglar sus problemas acumulados. La pareja ha asumido que solos ya no pueden y hará todo lo que sea necesario para que alguien venga y los resuelva. No tienen dinero para psicólogos, ni trabajo, ni tiempo, ni energía, ni herramientas para arreglar los líos que han acumulado con los años y los hijos. Pero sus hijos necesitan ayuda y ellos ya no saben qué hacer. A la desesperada llaman a la Super Nanny de la tele, sólo falta que venga con su varita mágica...

Ángela Chiva y **Paloma Porcel** se unen al reparto de esta ácida y divertida comedia en la que una familia busca solucionar sus problemas del día a día.





VOLVIÓ UNA NOCHE

BEATRIZ CARVAJAL CARLOS SANTOS

Abuztua **30** Agosto - Iraila **01** Septiembre

VICTORIA EUGENIA

20:00

28 € / 24 € / 20 €

● castellano

Manuel, pedikuran aritzen den gizon bat, aisialdietan tangoak eta boleroak kantatzen dituena kafe-antzoki ziztrin batean, hilerrira joaten da igandero, amari kontatzera nola joan zaion astea. Baina ezkontzera doala aitortzen duen egunean, hildakoa (Gloria) hilobitik aterako da semeari azalpenak eskatzera. Hark ihes egingo du izututa, eta emakumeak etxeraino jarraituko dio, nola bizi den jakiteko. Eskerrak Manuelek baino ez duen ikusten.

Daniel Ortiz, Berta Hernández, Pedro Segura eta **Mónica Graciak** osatzen dute komedia honetako aktore-taldea, eta **César Oliva** da zuzendaria.

Manuel, un hombre que se dedica a la pedicura y que en sus ratos libres interpreta tangos y boleros en un café teatro de mala muerte, visita, cada domingo, el cementerio para contarle a su madre cómo le ha ido a la semana. Pero el día que le confiesa que se va a casar, la fallecida (Gloria) sale de su tumba para pedirle explicaciones a su hijo. Ante la huida despavorida de él, ella se ve obligada a seguirle hasta su casa y averiguar cómo es realmente su vida. Menos mal que solo Manuel puede verla.

Daniel Ortiz, Berta Hernández, Pedro Segura y **Mónica Gracia** completan el reparto de esta comedia bajo la dirección de **César Oliva**.



LA MAGIA DE JORGE BLASS

JORGE BLASS

Iraila **05** - **08** Septiembre

ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL

20:00

25 € / 20 €

● castellano

La Magia de Jorge Blass ikuskizunean efektu ezinezkoak eta ezin ikusgarriagoak gertatuko dira, agertzeak eta desagertzeak, ezinezko lebitazioak eta magia interaktiboa, non ikus-entzuleak baitira protagonista. Hori guztia, misterioaren ganduan bildua, estetika zaindu batez, zeinari esker ezinezko denarekin liluratu eta amets egingo baitugu. David Copperfield amerikar magiaren izarrak esana da: "Jorge Blassek beste maila batera eraman du magiaren artea".

Ikuskizun honetan, harri eta zur geratuko zara magia egiteko duen modu apartari esker. Jorgek ilusio berriak asmatu ditu XXI. mendeko teknologiaz baliatuta, dron bat du laguntzaile, eta askoz ustekabe gehiago dakartza.

En la *Magia de Jorge Blass* sucederán efectos imposibles y visualmente espectaculares, con apariciones, desapariciones, levitaciones imposibles y magia interactiva en la que el público es el protagonista. Todo ello envuelto en un halo de misterio y una cuidada estética que consigue que volvamos a ilusionarnos y a soñar con lo imposible. La estrella de la magia americana David Copperfield ha declarado: "Jorge Blass eleva el arte de la magia a otro nivel".

En este espectáculo alucinarás con su extraordinaria forma de hacer magia. Jorge realiza nuevas ilusiones con tecnología del siglo XXI, un dron como ayudante y muchas más sorpresas.





THE HOLE ZERO

Iraila **05 - 08** Septiembre

VICTORIA EUGENIA

05: **20:30**

06 - 07: **19:30 + 22:30**

08: **18:00 + 20:45**

05, 06 (**19:30**): **40 € / 36 € / 28 €**

06 (**22:30**), 07, 08: **50 € / 45€ / 35 €**

● castellano

Zeremonia Maisuak (ZM) alde egin du Espainiatik, New Yorkera abiatu da Atlantikoa zeharkatuta, eta han Studio 54ko anfitrioi bilakatu da: modernotasunaren, askatasunaren eta dibertsioaren puntaren puntako gunea, zeinaren goiburua hauxe baita: "Gehiegikeriaren bidetik, jakintzaren jauregira". Huraxe artearen eta sormenaren munduan nor ziren guztien topagunea. Ba al da abagune hoberik Zuloa sor dadin?

Eta hori gutxi balitz, 1979ko Urte Zahar gauean gaude, hamarkada-aldaketa historikoa Atlantikoaren bi aldeetan. Neurrigabekeriaren gau seinlatu horretan, gure ZM horrek oztopo handienari egingo dio aurre, oso berezia den norbaitekin elkartzea galarazten zionari. Gaindituko al du? Hori jakiteko, *The Hole Zeron* sartu beharko duzu.

El Maestro de Ceremonias (MC) ha dejado España cruzando el charco rumbo a Nueva York donde se convierte en anfitrión del Studio 54: el máximo exponente de la modernidad, la libertad y la diversión cuyo lema era "El camino del exceso conduce al palacio de la sabiduría". El punto de encuentro para todo el que era "alguien" en el mundo del arte y la creatividad. ¿Qué mejor caldo de cultivo para el nacimiento del Ajujero?

Por si esto no fuera suficiente, estamos en la Nochevieja de 1979, un cambio de década histórico a ambos lados del Atlántico. En esta icónica noche de desenfreno nuestro MC se enfrentará a su mayor obstáculo, a lo que le impedía reencontrarse con alguien muy especial. ¿Conseguirá superarlo? Sólo lo sabrás si entras en *The Hole Zero*.



TXARRIBODA HIKA ANTZERKI TALDEA

Iraila **12 - 14** Septiembre

ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL

20:00

20 € / 15 €

● euskara

Hika Teatroak bere 30 urteak *Txarribodarekin* ospatu nahi ditu.

Ezkontza baten ospakizunaren kariaz, *Txarriboda* euskal kabareta da. Bertako melodiak berein-berein egindako letrekin.

Umorerik galdu gabe, *Txarriboda* honek ikaratu egingo zaitu, eta baita barrez leherrarazi ere. Identitate eraldaketa biziko duten pertsonaia multzoa aurkezten du, bakoitzaren inguruan mundu txiki bat eraikitzen du, eta guztien artean emozioen zoramena biziartzten du.

Gaitegi zabala: genero-identitatea, familia, edota lan baldintza kaxkarrak. Hauxe izan liteke emanaldietara jende ezberdina biltzeko agertu duen abildadearen beste arrazoietako bat. Izan ere, ezkontza honetan gazteek zein nagusiek, denek aurkitzen dute zertaz gozatu eta hausnartu.

Última producción de Hika Teatroa con 30 años de trayectoria.

Txarriboda, la historia de la celebración de una boda. Un cabaret compuesto con melodías de nuestra tierra y letras escritas para la ocasión.

A través del humor, *Txarriboda* hace temblar y reír. Plantea un devenir de identidades en desarrollo, crea un micro-mundo alrededor de cada personaje hasta llegar a la catarsis emocional conjunta.

Quizás sea esta una de las razones de la diversidad de público que ha conseguido. En la misma sala, jóvenes atraídos por temas clave como identidad, familia o precariedad laboral se encuentran con adultos de mediana y tercera edad tomando parte con facilidad de la misma celebración nupcial.





LUISA FERNANDA

SASIBILL LIRIKA ELKARTEA

ASOCIACIÓN LÍRICA SASIBIL

Iraila **13 - 14** Septiembre

VICTORIA EUGENIA

19:30

38 € / 25 € / 15 €

Musika **Música: Federico Moreno Torroba**

Sasibillek erreperitorio lirikoko zarzuelarik ezagunenatariko bat eszenaratuko du: *Luisa Fernanda* zarzuela, hain zuzen ere. Argumentua maitasun-istorio gorabeheratsu bat da: Luisa Fernanda Javierrez maiteminduta dago, bere betiko senargaiaz, baina mutila kaskarina eta txoroa izaki, neskak Vidalen errekeritzeei egingo die men. Azkenean, hala ere, Javier zoritxarrak kolpatuko baitu, harengana itzuliko da, Vidalek ere eskuzabal jokatu ondoren.

Gaur egun Espainian diren ahotsik onenatariko batzuk izango ditugu kantari taldean, **Sasibill Orkestra eta Abesbatzaren** batera. Denak ere **Arkaitz Mendozaren** zuzendaritzapean. **Koldo Torres** arduratu da eszena zuzendaritzaz.

Sasibill lleva al escenario una de las zarzuelas más populares del repertorio lírico con la representación de la zarzuela *Luisa Fernanda*. El argumento estriba en una historia de amor con avatares, pues Luisa Fernanda está enamorada de Javier, su novio de siempre, pero luego, ante la inconstancia y vanidad del mismo, oye las pláticas de Vidal,. Finalmente, ante la desgracia ocurrida a Javier, vuelve a él con la generosidad de Vidal.

Contaremos con un elenco de las mejores voces del actual panorama lírico nacional y la **Orquesta y Coro Sasibill**, todo ello bajo la dirección musical de **Arkaitz Mendoz** y la dirección escénica de **Koldo Torres**.



YO CIERVO

Iraila **27** Septiembre

IMANOL LARZABAL (LUGARITZ)

20:00

9 €

Ahotsa eta gitarra **Voz y guitarras: Imanol Rivas**

Ahotsa, bateria eta teklatura **Batería, voz, teclados: Julen Riva**

Baxua **Bajo: Koldo Belloso**

Musikari trebez osatutako Yo ciervo pop-rock talde donostiarrak *La Guerra de la Independencia* deituriko trilogiaren bigarren diskoa aurkeztuko du, diskoetxe handien laguntza eta inbertsiorik gabe euren proiektuak aurrera ateratzeko lan egiten duten musika taldeen aldarri egiten duen lana. Disko honetako *Mundu honetan* izeneko singela Gazteako lehen postuetara iristeaz gain Euskal Herriatik kanpo bira bat lotzeko bideak erraztu dizkie.

Esta carismática banda donostiarra de avezados músicos que hace pop-rock presenta el segundo disco de la trilogía denominada *La Guerra de la Independencia*, trabajo que habla de las bandas que sacan adelante su proyecto desde la autonomía más absoluta, sin grandes discográficas ni inversiones que las apoyen o impulsen. Su single *Mundu honetan* es una propuesta madura y sólida con textos de gran calado que se ha colado en el número uno de Gazteako y ha propiciado una gira fuera de Euskal Herria.





TENDRÍAMOS QUE HABER EMPEZADO DE OTRA MANERA

ÉKOMA TEATRO & JAVIER LIÑERA

Iraila **28** Septiembre

IMANOL LARZABAL (LUGARITZ)

20:00

10 €

Biolentzia, heriotza eta mendekua ikuspuntu ironiko eta ia komiko batetik landutako komedia beltza antzezten dute Aitor Perez eta Javier Liñerak. Bi lagunen istorioa kontatzen digute, non bietako baten aitona heriotza mendekatzen duten, aitona erail zuten pertsona hilaz. Hildakoaren gorpua desagertu beharra daukate, etxea utzi eta desagertu, inoiz bertan bizi ez balira moduan, inor ezagutu ez balute moduan, inoiz existitu ez balira moduan. Guztia ondo antolatua zeukaten baina ez zuten gauza bat kontuan hartu, ez zutela imajinatzen zer zekarren hiltzeak.

Aitor Pérez y Javier Liñera interpretan esta comedia negra llena de suspense en la que la violencia, la muerte y la venganza están tratados desde un punto de vista irónico y casi cómico. La pieza cuenta la historia de dos amigos que acaban de vengar la muerte del abuelo de uno de ellos, matando al hombre que lo mató. Ahora tienen que deshacerse del cuerpo, abandonar la casa y desaparecer, "como si nunca hubiéramos vivido aquí, como si nunca hubiéramos conocido a nadie, como si nunca hubiéramos existido". Lo tenían todo bien planificado. Pero no contaban con una cosa: no sabían lo que suponía matar.



LASTER PRÓXIMAMENTE



LISA STANSFIELD

AFFECTION

Azaroa **11** Noviembre

VICTORIA EUGENIA

20:00

28 €



WIM MERTENS

THAT WHICH IS NOT

Azaroa **13** Noviembre

VICTORIA EUGENIA

20:00

24 €



PEDRO GUERRA

#GOLOSINAS2018

Azaroa **17** Noviembre

VICTORIA EUGENIA

19:00

18 €



ALBERT PLA

MIEDO

Abendua **13** Diciembre

VICTORIA EUGENIA

20:00

20 €

DESKONTUAK

DESCUENTOS

⊖ %10

Donostia Kultura Bazkideak Socias/os de Donostia Kultura *
Langabetuak Personas en paro
30 urtetik beherakoak Menores de 30 años
Pentsiodunak eta 65 urtetik gorako pertsonak
Pensionistas y mayores de 65 años

-%10: Donostia Kulturak antolatutako ikuskizun guztietan.

Deskontua leihatilan egingo da soilik bi sarreratan ikuskizun bakoitzeko.

*** Donostia Kulturako bazkideek www.donostiakultura.eus/sarrerak webgunean ere lortu ahal izango dute deskontua, horretarako NAN zenbakia eta bazkide-pasahitza erabilita.**

- 10%: en todos los espectáculos organizados por Donostia Kultura.

Los descuentos se aplican en dos entradas por espectáculo y sólo en taquilla.

* Las/os socias y socios de Donostia Kultura también podrán beneficiarse de este descuento en www.donostiakultura.eus/sarrerak.

ORDU GAZTEA

30 urtetik beherakoek sarrerak 3 euroan erosteko eskaintza Victoria Eugenia Antzokian eta Antzoki Zaharrean, emanaldia hasi aurreko ordu erdian.

Info+: Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko leihatiletan.

Entradas a 3 euros para menores de 30 años en el Teatro Victoria Eugenia y Teatro Principal, media hora antes del inicio del espectáculo.
+ Info: en las taquillas del Teatro Victoria Eugenia y Teatro Principal

DESKONTUAK EZ DIRA BATERAGARRIAK
DESCUENTOS NO ACUMULABLES

Informazio eguneratua Información actualizada:
www.donostiakultura.eus



SARRERA SALMENTA

VENTA DE ENTRADAS

ANTZOKI ZAHARREKO LEIHATILA
TAQUILLA TEATRO PRINCIPAL

Kale Nagusia Calle Mayor, 1
20003 Donostia San Sebastián
TEL. 943 48 19 70
11:30 - 13:30 / 17:00 - 20:00

VICTORIA EUGENIAKO LEIHATILA
TAQUILLA VICTORIA EUGENIA

Argentinako Errepublika
Rep. Argentina, 2
20004 Donostia San Sebastián
TEL. 943 48 18 18
11:30 - 13:30 / 17:00 - 20:00

INTERNET:



DONOSTIAKULTURA.EUS/SARRERAK



**DONOSTIAKO
KULTURZALEEN
KLUBA**
CULTURA
MUY A MANO



WWW.DONOSTIAKULTURA.EUS/BAZKIDEAK

ERREGINA ERREGORDEA, 8 - 20003 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

TEL. 943 48 11 50 / DKTXARTELA@DONOSTIA.EUS

